

1995eko otsailak 1

Urteetan aurrera egin ahala gero eta hobeto dakigu gustatzen zaiguna zergatik gustatzen zaigun, eta tristea izaten da hori. Desilusio zama handia lotzen zaio jakinduria horri.

1995eko apirilak 28

Nora ote doa?

Apiril amaierako arratsalde lasaia da. Nor bere lanean murgilduta ikus ditzaket lankideak nire eserlekutik. Pantaila aurrean lanean batzuk, eserlekutik altxata besteak, komunera edo kafearen makinara joaten, liburukoteak edo egunkari eta aldizkariak kontsultatzen, zuzentzaileengana inguratu eta haiei galderak egiten... Telefonoaren txirrina entzuten da tarteka. Egunerokotasunaren magal abegikorra. Ez du inork gehiegizko larritasun edo estuasunik erakusten. Nekea bai, ageri da zenbait aurpegitan, eta egin beharrekoak lehenbailehen amaitu eta hemendik etxera ospa egiteko gogo. Baina hori ez da ezer. Dena ondo dabil. Pieza bakoitza bere lanean ari da, eta makina erraldoia martxan da. Gezurra badirudi ere, mundu osoko berriak jasotzen, aukeratzen, ordenatzen, laburtzen, euskaratzen, zuzentzen, txukuntzen eta irakurleari zerbitzatzeko prestatzen ari da erredakzioa, bihar, publizitate eta guzti, dena behar bezala egon dadin kioskoan.

Lehen orrialdea, Iritzia, Politika, Gizartea, Ekonomia, Estatuak, Nazioartea, Kirola, Kultura, Agenda, Azkena. Gauza bakoitza bere lekuan, txukun-txukun, dena argitasunez eta zehaztasunez azaldu eta interpretatua, ezeri ihes egiteko aukerarik eman gabe.

Erredakzio barrura begiratzeari utzita, hosto ugari eta ederreko gaztainondo oparoa dakusat alboko leihotik zehar. Haren atzetik mendi bidexka itzaltsu eta ezkutua abiatzen da... Nora ote doa?

1995eko irailak 2

Inoiz ez dakigu non dugun zain geldiarazi egingo gaituen irudia, eta gehien-gehienetan gutxien espero genuen tokian agertu ohi zaigu, bidelapur baten moduan, ezbehar eta nahigabeak bezalaxe. Hala ere irudiak gorde eta bildu egiten ditugu, eta erakutsi hormetan, ez harritu eta geldiaraz gaitzaten, gure harriduraren mugak areagotzeko baizik, hurrengoan ez gaitzaten hain aise geldiaraz, geldiarazten gaituen hurrengo irudia behin-betiko eta parerik gabekoa izango delako itxaropen faltsua indartzeko.

Horretarako egokiak dira erakusketa honetako irudiak. Sartzean baino maila bat gorago eta aurrerago gaude erakusketa honetatik irteteen. Harritu gabe ikusi ditugu, elkaturik eta guregana zuzendurik, irudi harrigarriak.

1995ko irailak 23

Pentsamoldea ez ezik sentimendua ere aldakorra dut. Jaka ez ezik azala ere aise dut aldatzen, une batetik bestera eta oharkabean. Elkarren aurkakoak diren gogoeta artikulua ez ezik elkarren aurkakoak diren poema zinez sentituak ere idatz ditzaket.

1995eko irailak 27

Euskal idazleen artean inbidia handiak daude. Ondo antzematen ditut, neuk ere berdin-berdinak ditudalako.

1995eko abenduak 25

Askotan pentsatu izan dut istripu hilgarria dudala zain bidearen hurrengo bihurgunean. Askotan bururatu izan zait horixe izango litzatekeela logikoena nire bizitzaren gidoian. Albisteak nire ingurukoengan izango lukeen oihartzuna ere irudikatzen dut horrelakoetan. Ez luke ezer arrarorik horrelako heriotza batek, xume eta arrunta litzateke, eguneroko kontua, ohikoa. Neuri horrelakoetan iruditzen zaidan bezalaxe, nire bizitzaren gidoian horixe zela logikoena irudituko litzaieke denei nire bat-bateko eta ezusteko heriotza ergelaren berri jakitean. (Ikus 1994-X-29.)